

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

**Hutsen zuzenketa, honako iragarki honena: 3542 iragarkia, 2022ko abenduaren 26ko 148 zenbakiko ALHAOn argitaratua, Añanako Kuadrillako 2022ko egonkortze-prozesuko lan-eskaintza publikoari dagozkion funtzionarioen 12 plazaren eta lan-kontratuko langileen 8 plazaren oinarri orokor eta espezifikoei buruzkoa**

Lehendakaritzaren 2023ko maiatzaren 3ko 33/2023 Ebazpenaren bidez, Añanako Kuadrillako 2022. urteko egonkortze-prozesuko lan-eskaintza publikoari dagozkion funtzionarioen 12 plazaren eta lan-kontratuko langileen 8 plazaren oinarri orokor eta espezifikoei duden akatsak zuzendu behar dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Zuzenketa hori honela egin behar da:

1. Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan, 7.2 puntuan,

Honako hau dioenean:

“Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da izangaiak, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskaera aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela hizkuntza-eskakizuna izan ezik, eta deialdia argitaratzen den egunean alegatutako eta autobaloratutako merezimenduak egiazkoak eta zehatzak direla. Nolanahi ere, bi kasuetan, Alkatetzak edo dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak horiek egiaztatu ahal izango ditu, edo, dagokionean, izangaiak alegatutako merezimenduak egiaztatu eta dagokion Epaimahai Kalifikatzaileak egiaztatu ahal izango ditu,

Honako hau esan behar du:

“Parte hartzeko eskabidearekin batera, ez da aurkeztu beharko parte hartzeko baldintzak eta alegatutako merezimenduak betetzen direla egiaztatzen duen agiririk. Nahikoa izango da izangaiak, beren erantzukizunpean, adieraztea parte hartzeko eskabidea aurkezteko epea amaitzen den egunean prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, hargatik eragotzi gabe dagokion epaimahaiburuak edo epaimahai kalifikatzaileak ondoren egiaztatzea edo, dagokionean, izangaiak alegatutako merezimenduak egiaztatzea eta epaimahai kalifikatzaileak egiaztatzea, 8. eta 14. oinarrietan ezarritakoaren arabera.

2. Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen Seigarren eta Zortzigarren Xedapen Gehigarrietatik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorretan, 8.1 puntuan, ezabatu egiten da adierazitako paragrafoa. Merezimenduak deialdia Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu aurreko egunera arte baloratuko dira, eta 8.1 puntu honen gainerako testua ez da aldatuko.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Ribabellosa, 2023ko maiatzaren 3a

*Lehendakaria*  
**JAVIER URIARTE JAIRO**